

2018-05-29ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko maiatzaren 29an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxienerako partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2018-03-13).

Parte-hartzeak:

Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du aurreko akta ez dagoela jarrita udaleko web-orrian.

Idazkari – kontu-hartzaileak erantzun du 2018ko aktak jarrita daudela, baina 2017ko ekitaldian, arazoa dagoelako leiho berri bat irekitzeko. Hala ere, orain enpresa bat kontratatu da web-orria kudeatzeko eta leihoa irekiko da.

Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du aktan ez dela azaltzen esanzen guztia.

Idazkari-kontu-hartzaileak erantzun dio legeak bakarrik ezartzen duela parte-hartzeen laburpena jaso behar dela aktan, grabazioa ere badagoelako.

Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du ez direla jendearen adierazpenak azaltzen.

Idazkari – kontu-hartzaileak erantzun dio ez direla aktan jendearen azalpenak aipatu behar eta horretarako dagoela grabazioa ere.

Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) erantzun dio akta eta grabazioak web-orrian jarri behar direla; bestela, jendeak ez du aukerarik edukiko jakiteko.

Alkateak adierazi du testuan agertzen dela:

«Hainbat aldiz galdetu dute proiektuari buruz (abenduan eta urtarrilean) eta ez dute erantzunik jaso...». Baina , “proiektuari” hitzaren ordeztu “aurrekontuari” esan zela, eta aldatu behar dela.

Eta aldaketa hori aho batez onartu da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau da : 5 boto alde (EAJ) eta 4 boto aurka (EH Bildu).

Beraz, Udalbatzak onartu du 2018-03-13ko akta.

EH Bildu taldeak adierazi du akten aurka bozkatu dutela, ez delako eztabaida guztia jasotzen.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/56 DEKRETUTIK 2018/80 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/56 dekretutik 2018/80 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Parte-hartzeak:

Alkateak adierazi du Alkatezaren Dekretuei buruzko zalantzarik edo galderarik egonez gero, galde-erreguen atalean argituko edo eztabaidatuko dela.

Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) aldaketaren zergatiaz galdetu du.

Alkateak erantzun dio gaia legezkoa edo formala baino ez dela.

Idazkariak erantzun du gaia formala dela, eta gauza bat dela galdera zehatz bati erantzutea eta beste gauza bat galdera edo eztabaida zabalagoak egitea, eta, horretarako, galde-erreguen atala dagoela.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du azkenean kontua dela alkateak dekretuen bidez gobernatu nahi duela. Adibidez, Udaletxe

berriaren proiektua egiteko kontratazioa bere taldeari ezer esan gabe egin da eta partaidetza kudeatzeko enpresa bat kontratatu da beste taldeari komentatu gabe. Horregatik azaldu da gai hau.

HIRUGARREN GAIA

KONTRATAZIO-MAHAI IRAUNKORRAREN OSAERA ERABAKITZEA, HALA BADAGOKIO.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legearen Bigarren Xedapen Osagarriaren 7. zenbakiak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/32/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako arautegi juridikoaren mende jartzen dituenak, honela zehazten du:

Udaleko kide edo funtzionario bat izango da Kontratazio Mahaiaren burua, eta mahaikide hauek edukiko ditu: idazkaria —edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoa egotzita duen organoaren titularra—, kontuhartzailea —edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoa egotzita duen organoaren titularra—, kontuhartzailea— edo, hala badagokio, ekonomiaren- aurrekontuaren kontrola egotzita duen organoaren titularra —eta kontratazio-organoak karrerako funtzionarioen edo udaleko langileen artean izendatzen dituen kideak edo udaleko kide hautetsiak; guztira ezin dira 3 baino gutxiago izan. Hala badagokio, Kontratazio Mahaiaren kide hautetsiak ezingo dira kide guztien herena baino gehiago izan. Udaleko funtzionario bat idazkari-lanetan arituko da.

El número 7 de la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español Las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/32/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, señala lo siguiente:

La Mesa de contratación estará presidida por un miembro de la Corporación o un funcionario de la misma, y formarán parte de ella, como vocales, el Secretario o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuida la función de asesoramiento jurídico, y el Interventor, o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuida la función de asesoramiento jurídico, y el Interventor, o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuidas la función de control económico-presupuestario, así como aquellos otros que se designen por el órgano de contratación entre el personal funcionario de carrera o personal laboral al servicio de la Corporación, o miembros electos de la misma, sin que su número, en total, sea inferior a tres. Los miembros electos que, en su caso, formen parte de la Mesa de contratación no podrán suponer más de un tercio del total de miembros de la misma. Actuará como Secretario un funcionario de la Corporación.

Udaleko tokiko erakundeetan,

En las Entidades locales

mankomunitateetan eta partzuergoetan, berriz, dagozkion probintziako diputazioetako edo probintzia bakarreko autonomia erkidegoetako langileek Kontratazio Mahaiaren kide izateko aukera edukiko dute.

Behin-behineko langileek ezingo dute Kontratazio Mahaiaren kide izan, ezta eskaintzen balioespentxostenik bidali ere. Bitarteko funtzionarioak mahaikideak izan daitezke, betiere prestakuntza nahikoarekin karrerako funtzionariorik ez badago eta espedientean horrela egiaztatzen bada.

Mahaiaren osaera dagokion kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Behin Betiko Kontratazio Mahaiak eratu ahal izango dira.

Kontuan hartuta Udalbatza hau Irurako Udaleko kontratazio-organoetako bat dela.

Kontuan hartuta Behin Betiko Kontratazio Mahaia eratzea borondatezkoa dela.

Hori ikusita, eta bozketa eginda, emaitza honakoa da:

- 5 boto alde (EAJ).
- 4 boto aurka (EH Bildu)

Beraz, udalbatzak hau onartu du

ERABAKIA:

1.- Behin Betiko Kontratazio

municipales, mancomunidades y consorcios locales, podrán integrarse en la Mesa personal al servicio de la correspondientes Diputaciones Provinciales o Comunidades Autónomas uniprovinciales.

En ningún caso podrá formar parte de las Mesas de contratación ni emitir informes de valoración de las ofertas, personal eventual. Podrá formar parte de la Mesa personal funcionario interino únicamente cuando no existan funcionarios de carrera suficientemente cualificados y así se acredite en el expediente.

La composición de la Mesa se publicará en el perfil de contratante del órgano de contratación correspondiente. Se podrá constituir Mesas de Contratación permanentes.

Considerando que este Pleno es uno de los órganos de contratación de Ayuntamiento de Irura.

Considerando que es voluntad, el constituir una Mesa de Contratación Permanente.

Ante ello, y puesto el punto a votación obtiene el siguiente resultado:

- 5 votos a favor (PNV).
- 4 votos en contra (EH Bildu).

En consecuencia ,el Pleno adopta el siguiente

ACUERDO:

1º.- Constituir una Mesa de

Mahaia eratzea kontratazio-prozeduretan, eta Udalbatza izan dadila haren kontratazio-organoa.

2.- Behin Betiko Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

-Lehendakaria: Udalekoa edo eskuordetutako zinegotzia.

-Kideak:

-Udaleko funtzionarioa edo langilea, kontratazioaren arabera.

-Idazkaria/kontu-hartzailea.

-Idazkaria:

Idazkaritzako/kontu-hartzaitzako funtzionarioa edo langilea, iritzia emateko eskubidearekin, baina ez botoa emateko.

Edonola ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak ere mahaikideak izan daitezke, betiere Udal honetako Kontratazio Mahaia osatzeko langile nahikorik ez badago.

Edonola ere, eta kontratazio-motaren arabera, aholkulari bereziak mahaikide izan daitezke, iritzia emateko eskubidearekin baina ez botorik ez, Kontratazio Mahaiaren lehendakariak horrela erabakiz gero.

Parte-hartzeak:

Idazkariak adierazi du lege-aldaketa bat izan dela, eta hautetsiak kontratazio-mahaiaren kideen herena izan behar direla gehienez eta besteak funtzionario baino ez direla izan behar. Udal honetan, ez dago funtzionario nahikorik mahai horretan parte hartzeko.

Contratación Permanente en los procedimientos de contratación cuyo órgano de contratación sea este Pleno.

2º.-Que la composición de la Mesa de Contratación Permanente sea la siguiente:

-Presidente: El/la de la Corporación o concejal en quien delegue.

-Vocales:

- Un/a funcionario/a o laboral de la Corporación en función de la contratación.

-El/la Secretario/a- Interventor/a.

-Secretario:

Un/a funcionario/a o laboral de la Oficina de Secretaría-Intervención con voz pero sin voto.

En todo caso podrá integrarse personal al servicio de la Diputación Foral de Gipuzkoa cuando no exista personal suficiente para integrar la Mesa de Contratación en este Ayuntamiento.

En todo caso y de acuerdo con el tipo de contratación se podrán incorporar a la Mesa, con voz pero sin voto, asesores especiales por decisión de la Presidencia de la Mesa de Contratación.

Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du agian aukera izango dutela bilerara gonbidatu bezala bertaratzeko.

Idazkariak adierazi du gonbidatu bezala bertaratzeko arazorik ez dagoela.

Mikel Iturbek (EH Bildu) adierazi du, bestela, bere taldea desagertu egingo dela kontratazioaren eremuan.

Alkateak adierazi du, kontrataziora iritsi aurretik, batzordea egin daitekeela.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun dio beste gaietan gobernuak hitza nola betetzen duen ikusita, bere taldeak ez duela baietzik emango. Adibide gisa aipatu du gobernuak nola jardun den aurreneko hautaketa-prozesuan.

Idazkariak adierazi du praktikoena dela udal-taldeak gonbidatu bezala parte hartzea mahaien bileretan.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) eskerrak eman dizkie EH Bildu taldea bileretara gonbidatzeagatik eta aurretik batzordea egiteagatik, baina adierazi du ez dela nahikoa eta aurka bozkatuko dutela.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO IKASTOLA KOOPERATIBAREN ETA UDALAREN ARTEAN ESKOLA-KIROLA KUDEATZEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Hitzarmena aurkeztu da Irurako Ikastola Koop. Elkartearen eta Irurako Udalaren artean, eskola-kirolari buruzko programak aurrera eramateko.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1º.- Helburu horrekin, 2017-2018 ikasturterako 2.000 euroko dirulaguntza ematea eta dagokion hitzarmena sinatzea.

2º.- Irurako Udaleko Marta Castrillo Iturralde zinegotziari baimena ematea Udalaren izenean hitzarmen hori sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

Parte-hartzeak:

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetu dio Marta Castrillo zinegotziari zertan geratu den frontoiaren erabileraren gaia ikastolari dagokionez. Horrez gain, adierazi du zazpigarren klausulak ezartzen duela Udalak kirol-instalazioak jarriko dituela eskola-kiroleko jarduerak gauzatzeko, baina adierazi behar da ere hori herritarren beste beharrak errespetatuz egingo dela betiere.

Marta Castrillok (EAJ) erantzun dio hori argituta geratu dela, eta badakitela.

BOSGARREN GAIA
MERKATARITZA-LOKALAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZEN
ARAUDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurkeztu dira udal diru-laguntzak emateko 2018ko deialdia arautuko duten oinarriak, Udalbatzak onartzeko. Helburua da Iruran hutsik dagoen merkataritza-lokal batean jarduera ekonomiko berria ipini nahi duen ekintzailearentzat lokalaren alokairurako diru-laguntza ematea.

Eta bozketa eginda, emaitza honako hau da :

- 5 boto alde (EAJ).
- 4 abstentzio (EH Bildu).

Beraz, udalbatzak hau onartu du :

ERABAKIA

1º.- Aipatu diren oinarriak onartzea.

2º.- Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta beste hedabide batzuetan argitaratzea eta diru-laguntzak izapidetzen hastea.

Parte-hartzeak :

Plazan zegoen zahar-etxearen lokalari buruz, Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) galdetu du hura erabiltzeko norbait azaldu den, nahiz eta epea oraindik irekita egon.

Alkateak erantzun dio mutil bat etorri zela, baina ez duela erantzunik aurkeztu.

SEIGARREN GAIA

ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZEN ARAUDIA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurkeztu da Irurako herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak 2018ko ekitaldiko deialdirako. Laguntzen xedea da eskaera egiten duten gazteen ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean. Horri dagokiola, gaztetzat hartuko dira 18 eta 35 urte bitarteko pertsonak.

Proposamenean adostu da alokairuen prezioen gehienezkoa 600 euroan finkatzea.

Eta Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da: aho batez aldekoa.

Beraz, udalbatzak onartu du :

ERABAKIA

1º.- Aipatu diren oinarriak onartzea.

2º.- Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta beste hedabideetan argitaratzea eta laguntzak izapidetzen hasia.

ZAZPIGARREN GAIA

UDALETXEA ERABERRITZEKO OBRA DELA-ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA ERABAKITZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen IV. kapituluak "Hiritarren partaidetza" erregulatzen du.

Haren 67. artikulua honela dio:

"Kapitulu honen xedea Euskadiko tokiko erakundeen gobernu- eta administrazio-funtzioen jardueratik eratorritako arauak eta plangintza-tresnak prestatzeko eta erabakiak hartzeko prozesuan pertsonen eta erakundeen edo elkarten partaidetza bermatuko duten baldintzak erregulatzea da".

Hori dela eta, Udal honek Egikaritze Proiektu hau prestatu nahi du: "Irurako udaletxea osorik berritzea eta zabaltzea".

Horretarako, partaidetzazko deliberazio-prozesu bat egin nahi du, Irurako herritarrei entzun eta arrazoiak eta motibazioak

El capítulo IV de la Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, se dedica a la regulación de la "Participación Ciudadana".

De acuerdo con el art. 67 de la misma:

"Es objeto del presente capítulo la regulación de las condiciones que garantizan la efectiva participación ciudadana de personas y entidades o asociaciones en el proceso de elaboración de normas, instrumentos de planificación y de toma de decisiones derivadas del ejercicio de las funciones de gobierno y administración de las entidades locales vascas."

Ante ello este Ayuntamiento quiere proceder a la elaboración del Proyecto de Ejecución de "Reforma Integral y Ampliación de la Casa Consistorial de Irura".

Para ello quiere realizar un proceso de deliberación participativa para escuchar a la ciudadanía de Irura y contrastar los argumentos y motivaciones de cara a elaborar las directrices fundamentales de

egiazatzeko, proiektu horren oinarritzko zuzentarauak prestatze aldera, aipaturiko Legearen 75. artikulutik 77. artikulura jasotakoarekin adostasunean.

Hori dela eta, bozketaren emaitza honakoa da:

- Aldeko botoak 5 (EAJ/PNV).
- Aurkako botoak 4 (EH Bildu).

Beraz, onartu da hurrengo

ERABAKIA

1.- Partaidetzazko deliberazio-prozesu bat onartzea "Udaletxea osorik berritzea eta zabaltzea" proiektua idazteko oinarritzko zuzentarauak prestatzeko.

2.- Gai hauen inguruan eztabaidatuko da:

- a) Proiektuaren ekarpenak, ideiak eta hobekuntzak.
- b) Eraikinaren goiko solairuan aurreikusitako eremu libreari zer erabilera eman diezazkioketen.

3.- Udalerri honetako bizilagunek modu librean eta bakarka parte har dezakete.

4.- Parte hartzeko bitartekoak:

- a) Ekarpenak edo iradokizunak bidaltzea Udalera.
- b) Tailer ireki batean parte hartzea.

5.- Informazio-bitartekoak:

- a) Informaziozko karpa.
- b) Informazioa sartzea web-orrian.

dicho proyecto y de acuerdo con lo dispuesto en el art. 75 al 77 de la Ley citada.

Ante ello, y puesto a votación obtiene el siguiente resultado :

- A favor 5 votos (EAJ/PNV).
- En contra 4 votos (EH Bildu).

Ante ello, queda aprobado el siguiente

ACUERDO:

1º.- Aprobar un proceso de deliberación participativa para elaborar las directrices fundamentales para redactar el Proyecto de "Reforma Integral y Ampliación de la Casa Consistorial".

2º.- Los temas de deliberación serían los siguientes:

- a) Aportaciones, ideas y, mejoras al Proyecto.
- b) Aportaciones a los posibles usos del espacio diáfano previsto en la planta superior del edificio.

3º.- La participación sería libre y a título individual de los vecinos de este municipio.

4º.- Medios de participación:

- a) Envios de aportaciones o sugerencias al Ayuntamiento.
- b) Participación en un Taller abierto.

5º.- Medios de información:

- c) Carpa informativa.
- d) Inserción de información en la

página Web.

6.- Prozesuaren iraupena gehienez: 15 egun, ekainaren 19tik ekainaren 30era arte.

6º.- Duración máxima del proceso: 15 días, del 19 de junio al 30 de junio.

7.-Arduradunak:

- Udaleko gobernuan: alkatea.
- Maila tekniko-
- -Juridikoan: Udaleko idazkaria.
- -Arkitektonikoan: Udaleko Hirigintza Saila.
- Prozesuaren garapena: Ibatuz S.L. kanpo-enpresa
- Aditua: Xabier Barrutieta arkitektoa, aurreproiektuaren idazlea.

7º.-Personas responsables:

- A nivel de gobierno municipal: Alcaldía.
- A nivel técnico:
- -Jurídico: Secretaría municipal.
- -Arquitectónico: Departamento de Urbanismo municipal.
- Desarrollo del proceso: empresa externa Ibatuz S.L.
- Experto: Arquitecto Xabier Barrutieta redactor del anteproyecto.

8.- Ondorioak: kanpo-enpresaren txostena, prozesuaren garapenari buruzkoa, eta egin diren iradokizunak eta ekarpenak.

8º.- Forma de conclusiones : informe de la empresa externa sobre el desarrollo del proceso y las sugerencias o aportaciones realizadas.

Parte-hartzeak:

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du harritura daudela gai horrekin. Adibidez, hirugarren solairuari zer erabilera emango zaion galdetzen da, eta adierazi du horrek esan nahi duen hirugarren solairua egitea erabakita dagoela.

Alkateak erantzun dio partaidetza proposamenaren aurreproiektuan oinarritzen dela, eta orain ikusi behar dela zer pentsatzen duten herritarrek.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun dio hirigintza-batzorde batean alkateak erakutsi zuela zenbateko kostua zuten aukera bakoitzaren aurrekontuek, hirugarren solairua egiteko ala ez erabakitzeko. Alabaina, haientzat ez zela nahikoa, hasieratik hasi behar zela. Izan ere, obra osoa egin behar den ala ez erabaki behar zen. Orain, 6 asteren ondoren, hirugarren solairuari zer erabilera emango zaion baino ez da galdetzen.

Alkateak erantzun dio enpresa bat etorriko dela prozesua egiteko, eta gai horri buruz informatuko dutela. Gainera, etxez etxe idazki informatiboa banatuko da, karpa jarriko da informatzeko, eta, gero, tailer irekia egingo da.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetu dio tailer horretan zer galdetuko den, atzeko zabalkuntza egingo den ala ez, hirugarren solairua egingo den edo hori dela erabakita egongo dela hasieratik.

Alkateak erantzun dio hori herritarrei galdetuko zaiela, baina aurreproiektuan proiektatuta dagoenarekin hasi behar dela.

Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du martxoan Udalbatzak bilera egin zuela, eta orduan, alkateak adierazi zuela proiektua herriaren onerako izango zela eta bi taldeen artean egingo zutela. Gero, hirigintza-batzordea egin eta hiru proiektu mota aurkeztu dira, eta, orain, galdetzen da hirugarren solairua zertarako erabili. Galdetu behar dena da hirugarren solairua egin behar den ala ez, eta baiezkoa ematen bazaio, galdetu beharko da zertarako erabili.

Jose Ramon Epeldek (EAJ) erantzun dio hori enpresak galdetuko duela.

Olaia Nietok (EH Bildu) galdetu dio enpresak nahi duena egingo duen.

Alkateak erantzun dio batzordean aurkeztu zirela proiektua diseinatzeko hiru aukerak, bakoitza bere aurrekontuarekin. Partaidetza kudeatuko duen enpresa horrek aurreproiektua zer egoeratan dagoen jakinaraziko du, eta aukera horiek aurkeztuko dira, eztabaidatzeko.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetu du hiru aukerak jarriko diren mahai gainean eta aukerak bozkatuko diren.

Alkateak erantzun dio ez direla bozkatuko, prozesua egingo dela herritarren ekarpenak jasotzeko.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetu du proiektua onartuta dagoen ala ez, kontuan izanda proiektua egiteko kontratua onartuta dagoela Alkatetza Dekretuaren bidez.

Alkateak erantzun dio, proiektua egiteko, lehenbizi zer eraikin egin behar den erabaki behar dela. Proiektua aurreproiektuan agertzen diren oinarriekin eta orain egingo diren ekarpenekin egingo da.

Olaia Nietok (EH Bildu) erantzun dio enpresa horri esan behar diotela partaidetza-prozesuan herritarrei aukera eman behar zaie erabakitzeko hirugarren solairua egin behar den ala ez.

Alkateak erantzun dio bakoitzak aukera duela esateko zer egin behar den ala ez.

Olaia Nietok (EH Bildu) erantzun dio galderak egin daitezkeela zeharka ala zuzenean. Zuzenean egiten badira, ez da ezer ezkututzen; baina zeharka egiten badira, informazio subliminala ematen ari dela.

Alkateak erantzun dio partaidetza honen ardatza aurreproiektua dela.

Olaia Nietok (EH Bildu) erantzun dio horrela dela, baina aurreproiektua egin zela diru-laguntzak jasotzeko helburuarekin.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun du EAJren helburua dela proiektua aurreproiektuaren arabera egitea, eta bestea berniza baino ez dela. Bildu taldeak esan zuen proiektua handiegia eta garestiegia zela. Presioa egin zen eta hainbat sinadura jaso, eta, ondorioz, orain EAJk pantomima hau prestatu du.

Alkateak erantzun dio ez dela ahaztu behar aurreproiektua denon artean adostu zela.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun dio martxoko osoko bilkuran alkateak herritarren aurrean esan zuela proiektua irekita zegoela, denon artean egiteko.

Mikel Iturbek (EH Bildu) erantzun du ez dutela pakete berean sartu behar, aurreproiektua diru-laguntzak jasotzeko egin zelako.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun du gai hau tranpa iruditzen zaiola, eta aurreproiektuari buruzko ekarpenak baino ez direla hartuko eta aurreproiektuak aurrera jarraitzen duela. Gainera, proiektua egitea kontratatu dago, eta hainbat jende aurka egonik, galdetu du zergatik ez dagoen aukerarik horiek partaidetza-prozesuan sartzeko. Halaber, alkatea Aldundiko Partaidetza-batzorde batean dago, baina, gero, hemen gardentasunik ez. Horrez gain, galdetu du nola aukeratu den partaidetza-prozesua kudeatuko duen Ibaizur enpresa.

Alkateak erantzun dio Aldundiko partaidetza-liburu batean agertzen dela.

Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du beste enpresa batzuk ere badaudela Gipuzkoan zerbitzu hori emateko.

Alkateak adierazi du itxaron behar dela herritarrek zer esaten duten ikusteko.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du ezin dela EAJren hitzarekin fidatu. Duela sei aste, hiru proposamen aurkeztu zituzten proiektua egiteko, eta, orain, beste proposamen batzuekin etorri dira, aurreproiektuaren aukera aurrera eramateko. Oso haserre daude, eta aurka bozkatuko dute.

Alkateak erantzun dio aurreproiektuaren ereduarekin jarraituko dutela, eta ikusi behar dela herritarrek zer esaten duten.

ZORTZIGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEAN EGIN BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Irurako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharreko Hitzarmenaren berri eman da, Udalbatzak onar dezan.

Eta Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1º.- Aipatu den Hitzarmena onartzea.

2º.- Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta beste edozein jarduera egiteko, helburua bete dadin.

Parte-hartzeak:

Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du bere taldeak hitzarmena onartuko duela, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen % 30eko murrizketa salatzen dutela.

BEDERATZIGARREN GAIA

TOLOMENDIRI 2018an EGIN BEHARREKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Jakinarazi da Tolomendi Tolosaldeako Landa Garapen Elkarteak 2018ko maiatzaren 7an Tolosan urteko Batzar Orokorra egin zuela, eta, bertan, 2018. urterako aurrekontu onartu zuela. Irurako Udalari 2.993,14 euro ordaintzea dagokio, elkartearen funtzionamendurako.

Eta udalbatzak, aho batez, onartu du :

ERABAKIA

Onartzea 2018ko urtearen ekarpena eta zuzenean ordaintzea.

HAMARGARREN GAIA

2019rako TOKIKO JAI OFIZIALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak jakinarazi du 2018ko apirilaren 16ko EHAOn argitaratu zela 51/2018 Dekretua, apirilaren 10ekoa,

Euskal Autonomia Erkidegoa langileen 2019. urterako jaiegunen egutegia onartzen duena, eta udalek proposatu behar dute tokian tokiko jaiegun bat. Lanerako egun baliogabe izango da, ordaindu eta ez da berreskuratu beharko.

Irurako udalerrian ohiko jaieguna San Migel izaten da, baina 2019n igandea denez, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

2019. urtean Irurako udalerriko jaieguna irailaren 27a, ostirala, izatea.

Parte-hartzeak :

Alkateak proposatu du irailaren 30a, astelehena, izatea.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) proposatu du astelehenaren ordezt, aurreko ostirala (irailaren 27a) izatea, hobe eta langileentzat.

HAMAIKAGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Txosten honen berri eman da:

“2018ko EKITALDIKO 1. HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ezarri du batez besteko epearen kontzeptua (OBE). Kontzeptu horrek xedatzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela, Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan, Irurako Udalaren 2018ko 1. hiruhiekoko ordainketa-epari buruzko txostenak aurkezten dizkizuet.

Hona hemen laburpena:

-1. hiruhileko epea: -4,98 egun.

Zenbaki negatiboak adierazten du jarritako epea baino lehenago ordaintzen direla fakturak. Zenbaki positiboak, aldiz, beranduago ordaintzen direla.

Kasu batean, positiboa da, nahiz eta lege barruan egon, muga 30 egunekoa baita.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HAMABIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a)** Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du irakurri dutela idazkari-kontu-hartzailearen txostena Udaletxea berritzeko proiektua idazteko kontratazioari buruz. Haien iritziz, ez da nahikoa eta irregulartasunak antzeman dituzte txostenean. Hortaz, beren aldetik, kontsultak egingo dituzte .
- b)** Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) galdetu du zaborren karakterizazioen txosten gehiagorik dagoen urte honetan.
Alkateak erantzun dio bakarra dagoela, eta emango dietela, baina Mankomunitateari galdetuko diola gai horren gaineko berririk badagoen.
- c)** Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du postontzietan banatu dela udaleko idazki bat, eta ez direla Frontoiko oihalak agertzen. Bilduren proposamena izan zen hori.
Alkateak erantzun dio aldizkarian agertzen dela Udalak zer egin duen, eta ez alderdi bakoitzak egin duena.
Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun du liburuxkan agertzen dela Laskibarren autobus-geralekua jartzea lortu dela.
Alkateak erantzun dio agertzen dela alegazioak egin zaizkiola Aldundiari Laskibarreko geralekua mantentzeko, baina oraindik ez dela erantzunik jaso.
- d)** Dekretuari buruz, Olaia Nietok (EH Bildu) esan du Larriturri auzoan obra bat amaitu gabe dagoela eta espedientea ireki dela, eta galdetu du zer gertatuko den eta eragin ekonomikorik izango duen.
Alkateak erantzun dio aparejadorearekin hitz egingo duela.
Olaia Nietok (Eh Bildu) galdetu du Irurako Ikastolaren zama finantzarioa diruz laguntzeko ordainketa aldatu den.
Idazkari-kontu-hartzaileak erantzun dio orain arte hiru hilean behin ordaintzen zuela Ikastolak, eta orain, berriz, bi hilean behin. Horregatik aldatu da ordainketa.
Bestalde, Olaia Nietok Geograma eta Ikerlur enpresen ordainketei buruz eta enpresa horiek nola aukeratu diren galdetu du.
Alkateak erantzun dio Geograma eta Ikerlur kontratatu direla Udaletxea berritzeko proiektua idazteko beharrezkoak direlako, eta udal-teknikariak proposatuta aukeratu direla.

- e) Bertaratu diren herritarrek galdetu diote alkateari Udaletxea berritzeko proiektuari buruz, eta eztabaida piztu da.

OHARRA: eztabaida osoa hemen jasota dago: "www.irura.eus".

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 21:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA